



Bizkaiko gurasoen elkarte

## INFORMAZIO FISKALA

### 1.- FORU OGASUNAREKIKO ZERGA-BETEBEHARRAK EGUNEAN IZATEARI BURUZKO DATUAK (ZIURTAGIRIA)

Zerga-betebehar baten egoerari buruzko egitateak frogatzen dituen Administrazioak emandako dokumentua joko da ziurtagiritzat.

Ziurtagiriek honako hauek egiaztatu ahal izango dituzte, besteak beste: aitopenen eta autolikidazioen aurkezpena edo horietan jasotako alderdi zehatz batzuk, errolda-egoera, zerga-eginbeharren betetzea eta zerga-administrazioaren datu-baseetan zerga-zorrik edo ordaindu beharreko zehapenik jasota dagoen edo ez.

Ziurtagiri hori gurasoen elkarte guztiek eskatu dezakete.

Ziurtagiria eskatzeko, honakoa behar da:

- Eusko Jaurlaritzak erregistratutako azken batzarra
- Elkartearen IFK
- Elkartearen estatutuak

Elkarteko presidentek egin behar du eskaera, aurrez aurre, Ogasuneko bulegoetan.

### 2.- GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRAK

Elkartek zuzenean kontratatutako langilerik baldin badago, Gizarte Segurantzari ordainketaren bat egitea falta den begiratu.

### 3.- 347 eredua, «Hirugarren pertsonetikiko eragiketen urteko aitortpena»

**Nahitaez** aurkeztu beharrekoa da, **urte naturalean hornitzaile edo zerbitzu-enpresa berari 3.005,06 € baino gehiago** ordaindu dieten elkarte guztien kasuan.

Modu telematikoan aurkeztu behar da, Internet bidez (Bizkaibai), eta horretarako, Foru Ogasunak baimendutako sinadura digitala eduki behar da (IZENPE).

347 eredua esteka honetan deskargatu dezakezue:

<http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/05/ogasuna/ereduak/argitaratu/347eurbilinst.pdf#page=4>

Otsailean amaituko da aurkezteko epea.

### 4.- PFEZaren aitortpena

Elkartek langile autonomoak kontratatzen baditu, Foru Ogasunean 110 eredua aurkeztu behar du, hiruhileko natural bakoitzaren bukaeran (apiril, uztail, urri eta urtarrileko 25. egunean) eta 190 eredua urtarrilean.

### 5.- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA



Bizkaiko gurasoen elkarte

## INFORMAZIO FISKALA

- Elkaratek **EZ** dute aitortpena aurkeztu beharrik izango, honako baldintzak betetzen badira:
  - Euren urteko diru-sarrera totalak 100.000 eurotik gorakoak ez izatea.
  - Atxikipenen pean dauden errenta ez-salbuetsiei dagozkien diru-sarrerak urtean 2.000 eurotik gorakoak ez izatea (elkarte batek interesen bidez diru-sarrerak sortzen dituzten kontu korronteak edo inbertsio-funtsak izan ditzake).
  - Lortzen dituzten errenta ez-salbuetsi guztiak atxikipenen pean egotea (aurretik adierazitako kontu korronteak izan ditzakete, edo atxikipenen peko ondasun alokatuak)

Elkarte batek pertsona fisiko edo juridiko bati faktura bat egin badio, zenbatekoa edozein dela ere, atxikipenaren pean ez dagoenez aipatutako eredia aurkeztu beharko luke, eta BEZa, kobratuz gero.

### 6.- IZENPE

Bitarteko elektronikoen bidezko gestioak. Informazio guztia webgune honetan kontsulta dezakezue: [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com)

### 7.- OGASUNEKO BULEGOAK

Balmaseda: Magdalena pasealekua 2. 48800 Balmaseda.

Barakaldo: Foru kalea 4. 48901 Barakaldo

Basauri: Nagusia 38 (sarrera Santiago kaleko 3.ean), anbulatorioaren aurrean. 48970 Basauri

Bilbo: Basurtuko kaputxinoak 2 eta 4. 48013 Bilbo.

Durango: Askatasun etorbidea 12. 48200 Durango.

Gernika-Lumo: San Juan Ibarra plaza 5. 48300 Gernika-Lumo.

Getxo: Konporte z.g. 48992 Getxo.

Mungia: Erribide 5. 48100 Mungia.

Portugalete: Castaños Jenerala 41. 48920 Portugalete.

Bulegoetako ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara